

## GURE DON KLAUDIO

Aurtengo Pazku Igandean, Jorrailaren 3'an, gomuta berezi bat: Gabon ostean, Urtarrilaren 29'an joan jakun gure Don Klaudio.

Bere eriotzak, oraindik zirrara aundiagoa egin eus-tan beretzat gertaurik neukan zorion-postala bertanbera geratu jatalako: gure Kurutziaga'ko Kurutzea zan. JAIO-TZA'ren ZORIONA, GURUTZE'agaz eta BERBIZKUN-DEAGAZ lotu eziñik, idatzi barik eta bialdu barik gel-ditu jatan azkenean!

Ostera Don Klaudio'k, Aberri Egun baten, San An-ton'go Berbizkunde Mezan, jakin euskun, bai, ERIO-TZA ta BERBIZKUNDEA, gure aberri txikia ta Aberri Aundia alkartzen!... Entzuleoi, poza ta bizitz-indarra emoten!...

Gero, gaixorik Artxanda'n egoala, berak esan eus-tan "Gurutzean nago" arek, barreneraiñoko dardarea egin eustan. Baiña, gure gauzak olan izanik, egin neu-tson ikustaldi bakarra izan zan axe: Parkatu Don Klaudio!

San Anton bere eleizan, berak merezi ebanez, Don Klaudio'ren gurutzetik jatzitea eta Berbizkundera ospatu genduzan. Gotzaiña ta eun bat abaderen alkarmeza, San Anton'go abesbatza ta erriaren kantauak; txistulari ta bertsolariak... Bai, dana berak merezi ebanez! Euka-ristia aretan, fedea iñoskun, Kristo'k gurutzetik kendu eta berbiztu ebala!

Ziurretik Don Klaudio'k, arako Kili-Kili'ko ibillaldi aretan lez, mini-morristxo aren barruan sartuta egoala egin gura ta urten ez, egin eban argazkiaren eguneko antzera, bere tranpaz beteriko ume onaren irribarre aregaz, zoriontsu ta pozik begiratuko euskun: orain-goan, betiko zorionaren pozaz. Orain, Don Klaudio, Iagundu guri!

Azkenean, guraiña ereserki ederrez azken agurra egin geuntsonean, danen artean niri, biotza geien iku-tu, Don Klaudio berak, asmauriko arek egin eustan:

Begoñako Andra Mari  
Bizkaiko Zaindari,  
zure seme maitaleak  
zugana kantari!

MAITENA'K

### ALDAPE

Basetxe apala; mendi azpian  
geure enda zarraren abi barria;  
abi jatorra, saspi mutillak  
urte gitxitan, an jayo dira.

Gero neskatxa,

danen biotzak alaitzen dira.

i Geure arkondarak lisatuteko  
orain arreba dogu etxian!

Urtiak juan, urtia etorri,  
ezpeitk gabe,

aldatuko zan ango sendia.

Pilpil txikiak, larrosa ederrak  
bigurtzen dira.

Mutil koskorak, gizonak einda  
bana banaka, aldatzen dira.

Bat izan ezik, gaste-gastia  
guda ankerrak eruanda, il zan.

Aldape zarra, zindo-baratza,  
Jauna'rentzako bi, beresiak:  
bat Karmeldarra,  
misiolaria, juan zan bestia.  
iAldape zarra, enda kabia,  
Euzkadi atala agurgarrial.

UTARSUS

